# 2025 JAI EGITARAUA

## 20 EKAINAK OSTIRALA

**18:30ean**
**GOMAZKO ETA LARRUZKO PALETA FINALAK**
Altzako frontoian.

**Ondoren**
**SARI BANAKETA** egingo da.

**21:30ean**
**AFARIA**, San Martzial Paleta Txapelketa eta mus txapelketako partaideekin batera.
Altzatarra K.E.ren egoitzan.

## 21 EKAINAK LARUNBATA

**09:00etan**
**PUSKA BILTZEA**
Altzako baserrietan barrena ibiliko gara, **2025eko Jai Egitarauaren eskaintza** eginez, **Donostiako Musika Eskolako trikitilarien** laguntzaz.
*Animatu eta pasa goiza erromeria giroan!*
Altzatarra K.E.ren egoitzan.






22 EKAINAK
## IGANDEA

**09:00etan**

**TXIRRITA MENDI LASTERKETA**

Altzako San Martzial plazatik irtenda eta bertan amaituta, 17 kilometroko ibilbide zirkularra osatuko da, 723 metroko desnibel positiboarekin. Ibilbidea Altzako, Errenteriako eta Astigarragako mendietatik igaroko da, Txoritokieta, Kutarro eta San Markos gailurrak zeharkatuz.

San Martzial plazan.





## 27 EKAINAK OSTIRALA

**17:30ean**
**DANTZA MODERNOA**, Pauso-K Dance Studio taldearen eskutik.
Plaza Gorrian.

**Ondoren**
**EUSKAL DANTZA** emanaldia Herri Ametsa dantza taldearen eskutik.

**18:30ean**
**PREGOIA**
Jaiei hasiera emateko unea! **Altza Futbol Sala**ko lagunek irakurriko dute pregoia, festari bultzada emanez.
San Martzial plazan.

**Ondoren**
**AGINTARIEN SOKA-DANTZA**
Ekialdeko barrutiko ordezkariek soka-dantza dantzatuko dute, jaiei hasiera ofiziala ospatzeko.

**19:00etan**
**ONGI ETORRI ALTZARA!**
Brindisa egingo da 2024 eta 2025 ean Altzara etorri berri diren herritarren alde.
San Martzial plazan.

**19:15etan**
**EMAKUMEZKOEN GOMAZKO PALETA FINALA**
Altzako frontoian.

**20:00etan**

**BURUHANDIAK KALEETAN ZEHAR**
Buruhandiek Altzako kaleak alaituko dituzte, txikienen eta ez hain txikien gozamenerako!
Altzako kaleetan zehar.

**20:00etan**

**ALTZA HERRIA V. PILOTA TXAPELKETAKO FINALA**
Pilota zaleentzako hitzordu nagusia!
Altzako frontoian.

**20:30ean**

**AFARIA**, danborrada parte hartuko dutenentzat eta altzatar guztientzat.
*Txartelak aurretik hartu behar dira.*
Altzatarra K.E.ren egoitzan.



@DJTXET

**21:00etan**

**DJ TXET: GAU FESTA MARTXAN**
Musika eta giroa bermatuta DJ Txet-en eskutik. Prest dantzarako?
San Martzial plazan.

**22:00etan**

**DANBORRADA**
Pasai Txarangak lagunduta, danborradako partaideek Altzako kaleak alaituko dituzte.
Altzatarra K.E.ren egoitzan.

**20:30ean**

**KIKE BIGURIREN BAKARRIZKETA**
Umorea eta barreak ziurtatuta!
Elizasu inguruan.


KIKE BIGURI

**00:00etan**

**SAN MARTZIAL ERRESERKIAREN ABESTEA**, danborradako partaideak eta auzotarrekin batera.
San Martzial plazan.

**00:30ean**

**UNOTRES MOBB: ALTZAKO GAZTEEN RAP GAUA**
Altzatar gazteek eszenatokia hartuko dute.
San Martzial plazan.

**Ondoren**

**SNKT TALDEA**k rap freskoa eta kaleko jarrera ekarriko du Altzara.


SNKT




## 28 EKAINAK LARUNBATA

**10:00etan**

**ERAKUSKETA "ALTZA 1931-1936"**
Altzako Historia Mintegiak antolaturik.
Altzako udaletxean.

**10:30ean**

**MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTASUN AZOKA**
**ASGICER** elkartearen laguntzarekin. Zatoz, lagundu eta parte hartu!
Plaza Gorrian.

**11:00etan**

**PUZGARRIAK** haurrentzat!
Umeek primeran pasatuko dute salto eta jolas artean.
Elizasu inguruan.

**11:00etan**

**GIZA PROBA DESAFIOA**
Ikusi herriko indartsuenak nola neurtzen diren!
Altzako probalekuan.

**13:00etan**

**PILOTA PARTIDA HANDIA!**
Goñi II - Azanza vs. Xala - Pascual. Ez galdu!
Altzako frontoian.

**14:30ean**
**HERRI BAZKARIA**
Giro aparta, janari ona eta lagunartea. Txartelak tabernetan daude salgai, aurrez hartu!
San Martzial plazan.

**17:00etan**
**SHOW-TIME TALDEAREN DANTZA EMANALDIA**
Erritmo eta kolorez betetako ikuskizuna!
Plaza Gorrian.

**17:30ean**
**ELEKTROBUIAKA ELEKTROTXARANGA**
Musika eta festa kalez kale.
Txoznan hasita, Altzako kaleetan zehar.


ELEKTROBUIAKA

**19:00etan**
**BURUHANDIAK**
Giro ederrean ibiliko dira kaleetan, prest zaude haiekin topatzeko?
Altzako kaleetan zehar.

**19:30ean**
**ZUMBA SAIOA**
ASGICER elkartearen eskutik, mugitu gorputza eta ondo pasa!
Plaza Gorrian.

**20:00etan**
**LEE JUNIOR ZUZENEAN**
Musika eta giro aparta arratsaldea bukatzeko.
Elizasu inguruan.

**22:00etan**
**BINGO MUSIKATUA**
Zorte pixka batekin, sari eder bat etxera!
Txoznagunean.

**23:00etan**
**DJ MARIO GARCÍA**
Festa pizteko prest dago!
San Martzial Plazan.

**00:00etan**
**ZEZENSUZKOA**
Kaleetan zehar ikus-entzunezko ikuskizun paregabea!
Altzako kaleetan zehar.

**Ondoren**
**DJ MARIO GARCÍA**rekin jarraituko dugu festan!

**01:30ean**
**DJ TXOLAS**
Gaua bukatzeko azken dantzak!
San Martzial plazan.


@TXOLASDJ



KULTUR-ARTEKO EGUNA

## 29 EKAINAK IGANDEA

**09:00etan**

**DIANA**

**Donostiako Txistulari Banda**

Altzako kaleetan barrena esnatzen ibiliko da.

Altzako kaleetan zehar.

**10:00etan**

**ERAKUSKETA "ALTZA 1931-1936"**

Altzako Historia Mintegiak antolaturik.

Altzako udaletxean.

**11:00etan**

**HAUR DANBORRADA**

Txikien danbor hotsek herria beteko dute!

San Martzial plazan.

**11:30ean**

**BOLO JAURTIKETA LEIHAKETA**

Zatoz bolatokira eta parte hartu! Sariak irabazleentzat.

Udal bolatokian.

Izen-ematea: 10:30-11:30 bitartean.

**12:00etan**

**NAO ETXEA ABESBATZAREN EMANALDIA**

Altzako Nao Etxeko jubilatuen abesbatzak bere ahotsak eskainiko dizkigu goiz giro atsegin batean.

San Martzial Parrokian.

**12:30ean**

**ALTZAKILLO**

Flamenkoa eta Euskal Dantza bat eginik!

Plaza Gorrian.

**16:00etan**

**KULTURARTEKO TAILERRAK ETA MUNDUKO DANTZAK**

Munduko hainbat txokotatik etorritako erritmo eta koloreak, parte hartu eta goza ezazu!

Plaza Gorrian.

**18:00etan**

**SAGARDO EGUNA**

Sagardo dastaketa hainbat sagardotegirekin.

San Martzial plazan.

**19:00etan**

**BURUHANDIAK BERRIZ KALEAN!**

Txikien artean barre eta harridura sortuz ibiliko dira kalez kale.

Altzako kaleetan zehar.




**19:30ean**

**SALSA IKASTAROA**

Erritmo beroak eta mugimendu dantzariak Ivan Bermejoren eskutik.

Plaza Gorrian.

**20:00etan**

**SALBEA**

Eslaba maisuaren Salbea lau ahotsetara eta organoarekin. Aita Sierra Abesbatza eta Parrokiko Koruaren partaidetzarekin.

San Martzial Parrokian.

**20:30ean**

**LA JODEDERA MUSIKA TALDEAREN EMANALDIA!**

Kuba eta Euskal Herriko doinuak uztartzen dituen talde zoragarria.

San Martzial plazan.






## SAN MARTZIAL EGUNA

## 30 EKAINAK ASTELEHENA

**10:00etan**

**ERAKUSKETA "ALTZA 1931-1936"**
Altzako Historia Mintegiak antolaturik.
Altzako udaletxean.

**11:00etan**

**MEZA NAGUSIA ALTZAKO DEUN GORENAREN OMENEZ**
Abesbatzak girotuko du eta, ondoren, kontzertua izango da.
San Martzial Parrokian.

**12:00etan**

**KANTU JIRA ALTZA KANTUZ TALDEAREKIN**
Animatu kalez kale abestera eta giroa sortzera!
Altzako kaleetan zehar.

**12:30ean**

**HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA!**
Euskal kirol tradizionalak zuzenean, giro paregabean.
Plaza Gorrian.




## 13:30ean

**PATATA-TORTILLA LEHIAKETA**

Prest al zaude zure tortilla aurkezteko? Gosea eta sormena bat eginik!

San Martzial plazan.

## 13:30ean

**POSTRE-LEIHAKETA**

Ekar ezazu zure postre goxoena eta parte hartu leihan! Epaimahaiak onenak sarituko ditu.

San Martzial plazan.

## 17:00etan

**FRONTENIS TXAPELKETA ALTZATAR GAZTEENTZAT**

Animatu parte hartzera! Sariak egongo dira! (8-12 urte)

Altzako frontoian.

Izen-ematea: 16:30-17:00

## 18:00etan

**"KARPATY" ZIRKO ETA KALE-ANTZERKIA**

La Troupe Malabó konpainiaren ikuskizun zoragarria, Casares Kultur Etxearen eskutik.

Plaza Gorrian.

## 19:00etan

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK KALEETAN ZEHAR**

Txikien eta nagusien artean irribarreak banatzen.

Altzako kaleetan zehar.

## 20:00etan

**SARDINA-JATEA**

Nao Etxeko Estheren eskutik prestatuta, Arabako Errioxako D. Luis R. ardoarekin eta VINOTEC ardo-etxearen babesean. Ezin giro hoberik!

San Martzial plazan.

## 20:30ean

**ALTZAKO JAIETAKO FRONTENIS TXAPELKETAREN FINALA**

Txapelaren bila azken partida!

Altzako frontoian.

## 21:00etan

**CLOWN IKUSKIZUNA ANDER SÁNCHEZEN ESKUTIK**

Umorea eta magia Bizarrain elkartearen antolakuntzarekin.

Plaza Gorrian.





HAURREN ETA JUBILATUEN EGUNA

## 01 UZTAILAK ASTEARTEA

**12:00etan**
**TOKA TXAPELKETA JUBILATUENTZAT**
Nao Etxeak antolatuta, zatoz eta saiatu txapeldun izaten!
Nao Etxean.

**12:00etan**
**HAURRENTZAKO MARRAZKI LEIHAKETA**
La Más Kuki-k antolatuta.
Plaza Gorrian.

**16:30ean**
**FUTBOL TXAPELKETA ETA JOLASAK**
Umeek kirola eta jolasak uztartzeko aukera bikaina.
Altza Herri Ikastetxean.

**16:30ean**
**AURPEGI MARGOTZEKO TAILERRA**
Maider Ferreira profesionalarekin. Kolorea eta sormena aurpegian!
San Martzial plazan.



## 16:30ean

### ALTZAKO ERRESUMA MAGIKOA: HAUR GINKANA BEREZIA

Duela urte asko madarikazioa jasan zuen Altzako Erresuma askatzeko aukera izango duzue! Herensuge beldurgarria garaitu, errege-erregina askatu eta azken erronka gaindituz magia berreskuratu beharko duzue. Froga dibertigarriak, fantasiaz beteriko istorioa eta parte-hartzaile guztientzako sorpresak!

San Martzial plazan.

## 17:00etan

### NAO ETXEKO TXAPELKETEN SARI BANAKETA

Ondoren, luntxa eta dantza bazkide eta lagunentzat. Giro bikaina!

Nao Etxean.

## 18:00etan

### APAR FESTA

Musika, giro aparta eta litroka aparra! Prest zaude apar artean saltoka ibiltzeko?

San Martzial plazan.

## Ondoren

### TXOKOLATE-JANA HAURRENTZAT

Eztarria gozatzeko momentua, apar festaren ostean indarrak berreskuratzeko!

## 18:00etan

### IDIEN PISAKETA

Hurrengo egunean idi probetan parte hartuko duten lau idi bikoteen pisaketa egingo da, Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioko epaileen eta albaitarien aurrean.

Oreretako Egi-Luzeko baskulan.

## 19:00etan

### ANGEL MAGOAREN IKUSKIZUNA

Magia eta harridura txikien eta handienen gozagarri.

Plaza Gorrian.

## 20:00etan

### BURUHANDIAK KALEETAN ZEHAR

Kaleetan barrena ibiliko dira giroa alaitzen eta umeen irribarreak pizten.

Altzako kaleetan zehar.

## 20:00etan

### MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

San Martzial plazan.

## 20:30ean

### DISKOFESTA

Eguna amaitzeko musika, dantza eta festa!

San Martzial plazan.



## BASERRI-TARREN EGUNA

## 02 UZTAILAK ASTEAZKENA

**10:00etan**
**MEZA NAGUSIA SANTA IXABEL EGUNEAN**
San Martzial Parrokian.

**10:45ean**
**XXXII. SAGARDO LEHIAKETA**
Eskualdeko sagardogile onenak elkartuko dira: Barkaiztegi, Lizeaga, Gartziategi, Oyarbide, Petritegi, Altzueta, Alorrenea, Eula eta Akarregi. Ondoren, sari banaketa!
San Martzial plazan.

**12:00etan**
**OGITARTEKOAK NAO ETXEAREN ESKUTIK**
Txistorra, gazta eta hirugihar ogitartekoak, goizeko lanaren ostean indarrak berreskuratzeko.
San Martzial plazan.

**12:30ean**
**IDI-DEMAK**
Aldez aurreko zozketaren ondoren, bi idi bikote goizez eta beste bi arratsaldez jardungo dira. Diru-sariez gain, bikote irabazlearentzat sari berezia egongo da. Parte hartzaileek gutxienez 30 plaza egin beharko dituzte, 2.000 kiloko harriarekin, diru-saria edo garaikurra eskuratzeko.
Udal probalekuan.

**Aurten parte hartuko dute:**
1. Mari Karmen Portu (Lasarte-Oria)
2. Jexux Mari Matxain (Orereta)
3. Patxi Ilarreta (Orereta)
4. Iker Zubillaga (Igeldo)



BERTSOLARIAK

## 13:00etan

**BERTSOLARIAK**

Bertso artean barreak eta hausnarketarako uneak bizitzeko aukera izango dugu.

**Gaijartzailea**: Joseba Alkiza.

**Bertsolariak**: Jexus Mari Irazu eta Libe Goenaga.

San Martzial plazan.

## 14:30ean

**ANAITASUNEZKO BAZKARIA**

Giro ezin hobea, bertsolarien laguntzarekin.

*Txartelak aurretik hartu behar dira.*

Altzatarra K.E.ren egoitzan.

## 18:00etan

**IDI-DEMEN ERAKUSTALDIA**

Arratsaldean ere indar erakustaldi ikusgarria!

Altzako probalekuan.

## Ondoren

**BERTSOLARIEN AZKEN SAIOA**

Goizean kantuan aritutako bertsolariek azken saioarekin emango diote amaiera egunari.

San Martzial plazan.

